

SMS lehiaketa 2012



SMS lehiaketa 2012

OINARRIAK

- **Parte-hartzaileak:** 18 urtetik beherako Euskal Herriko ikasle guztiak.
- **Gaia:** gustuko duzun musikariaren kontzertura joan zara eta emanaldia amaitzean diskoak sinatzen ari da. Zer nahi zenuke zuri jartzea? (gehienez 30 karaktere).
- **Nola bidali:** parte-hartzaileek nahi adina mezu bidali ahal izango dituzte telefono, posta elektronikoa edo www.oarsoarrak.net atariaren bidez.
- **Nora bidali:** zure mezua 660387044 telefonora (mezuaren prezioa gutxi gorabehera 0,15 € + BEZ) edo sms@oarsoaldea.net-era.
Mezua e-mailez bidaltzen duzuenok izen-abizenak, jaiotze data eta herria zehaztu beharko dituzue. SMSa bidali eta finalista gertatzen zaretenoi, berriz, deitu egingo dizuete datu horiek eskatzeko eta hala, esaldia balioztatzeko.
- **Epea:** otsailaren 9tik martxoaren 9ra.
- **Saria:** 300 euroko erosketa txartela Oarsoaldeko dendetan gastatzeko.
- **Epai-mahaia:** eskualdeko DBH-4ko ikasleek aukeratuko dute SMS irabazlea.
- **Sari-ematea:** martxoaren 30ean egingo den prentsa agerraldian jakinaraziko da zein den SMS irabazlea eta bertan egingo da sari-ematea.

Martxoaren 14tik aurrera ikusi SMSak hemen:
www.oarsoarrak.net

Jakinarazten dizugu zure telefono zenbakia edo e-posta helbideak "EUSKARA" izeneko fitxategi automatizatu bat osatuko dutela. OARSOALDEA, B.A.ren fitxategi honen helburua hauex da: zerbitzuak jaso edo eskaintzen dituzten Euskara Zerbitzuko erabiltzaileen datuak kudeatzea. Datu hauek helburu horietarako gure erakundearekin lan egiten duten entitateen eskura egongo dira. Datuak Babesteko Agentzia Espainiarrari eman diogu Fitxategiaren berri, datuen segurtasun osoa bermatzeko beharrezkoak diren neurriak betez.

Datu pertsonalak babesteari buruz indarrean dagoen araudia betez, Datuak Babesteko Lege Organikoak espresuki aitortzen duen datuak ikusteko, zuzentzeko, kentzeko eta errefusatzeko eskubidea izango duzu. Horretarako, dbo@oarsoaldea.net posta elektronikoa bidez Segurtasuneko Arduradunarekin harremanetan jarri eta fitxategiaren izena adierazi beharko duzu.